**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

--------

San Bizente 8
Albia I eraikina, 4. solairua
Telefonoa: 94 487 31 00
**48001 BILBAO**

Bilbon, 2016ko ekainaren 22an
Bilbao, 22 de junio de 2016

ura
ur agentzia
agencia vasca del agua

2016 EKA. JUN. 24

| SARRERA / ENTRADA | IRTEERA/SALIDA |
|---|---|
| 554/3179 | / |

Idazkaritza Nagusia
Secretaría General

BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA
Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia
IRTEERAKO LERROKAPEN
REGISTRO DE SALIDA
Znb. / Nº: 4334 Data / Fecha: 23/06/2016 08:24

**IÑIGO ANSOLA KAREAGA**
**Uraren Euskal Agentziako Zuzendari Nagusia**
**Director de la Agencia Vasca del Agua**
**Orio 1-3**
**01010 VITORIA-GASTEIZ**

SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENAREN BIDALKETA.

Honekin batera, atseginez bidaltzen dizut, behar bezala beteta, sinatutako Lankidetza Hitzarmenaren kopia bat, Erakunde horrek artxibatu dezan eta jasota gera dadin.

Begirunez,

REMISIÓN DE CONVENIO DE COLABORACIÓN SUSCRITO.

Adjunto me complace remitirle debidamente cumplimentada una copia del Convenio de Colaboración suscrito, para archivo y constancia en esa Institución.

Atentamente,

Idazkaritza Orokorra
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

[redacted]

Iz. / [redacted]
IDAZKARIA / SECRETARIA.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

BERRIATUKO UDALAREN, BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ETA URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, **"BERRIATUA-ONDARROA ETENGAILUA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN (2. FASEA) 1. LAN OSAGARRIEN PROIEKTUA"** DELAKOAN BARNE HARTURIKO OBRAK GAUZATU ETA FINANTZATZEKO

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE BERRIATUA, EL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA Y LA AGENCIA VASCA DEL AGUA PARA LA EJECUCIÓN Y FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS INCLUIDAS EN EL **"PROYECTO DE OBRAS COMPLEMENTARIAS Nº1 DEL PROYECTO CONSTRUCTIVO DEL INTERCEPTOR BERRIATUA-ONDARROA (2ªFASE) "**

Bilbon, 2016ko ekainaren 1(e)(a)n

En Bilbao, a 1 de junio de 2016

## BATU DIRA

**D. JON ARRIOLA ESPILLA jauna, Berriatuko Udaleko alkate-udalburua, 2016ko maiatzaren 23an Osoko Bilkuran hartutako erabakia betez.**

**RICARDO BARKALA ZUMELZU jauna, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea, Zuzendaritza Batzordearen 2016ko maiatzaren 30eko erabakiaren bitartez ahaldunduta ekitaldi honetarako.**

**Iñigo Ansola Kareaga jauna, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia, estatutuetako 7.2.g artikuluak ematen dion eskumenari jarraituz.**

## REUNIDOS

**D. JON ARRIOLA ESPILLA, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Berriatua, actuando en virtud del Acuerdo del Pleno de fecha 23 de mayo de 2016.**

**D. RICARDO BARKALA ZUMELZU, Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, facultado para este acto por acuerdo del Comité Directivo de fecha 30 de mayo de 2016.**

**D. Iñigo Ansola Kareaga, Director General de la Agencia Vasca del agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g de los estatutos.**

## JARDUN DUTE

Hiruek jardun dute beren Erakundeetako presidente/zuzendari eta ordezkari gisa, eta legezko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko; beraz,

## INTERVIENEN

Los tres intervinientes actúan como presidentes/ directores de sus respectivas Entidades y en su representación, reconociéndose capacidad legal suficiente para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto,

## HONAKOA ADIERAZI DUTE

**LEHENENGOA.**
Berriatuko Udalak eskumena dauka estolderia eta hondakin uren tratamenduaren arloan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

**BIGARRENA.**
Ur Partzuergoaren egiteko nagusia Partzuergoa osatzen duten udalen lurralde-eremuan Ur Hornikuntza eta Saneamendu zerbitzuak ematea da, 2014ko azaroaren 5eko Batzar Nagusian azkenekoz aldatutako Estatutuen arabera.

**HIRUGARRENA.**
Ekainaren 26ko 1/2006 Legea betez, Uraren Euskal Agentzia sortu zen, ingurumen arloko eskumena duen sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, Euskadin ur-politika aurrera eramateko xedearekin.

**LAUGARRENA.**
Gaur egun, Ur Partzuergoak Lehen Mailako Sareko Saneamendu Zerbitzua eskaintzen du, eta Udala Bigarren Mailako Sarearen edo udal-estolderiaren arduraduna da. Bestalde, Uraren Euskal Agentziak, besteak beste, jabari publiko hidraulikoan esku hartzeko eskumena du, ibilgura isurtzeko baimenak

## EXPONEN

**PRIMERO.**
Que el Municipio de Berriatua tiene competencia en materia de alcantarillado y tratamiento de aguas residuales, en virtud de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

**SEGUNDO.**
Que el Consorcio de Aguas tiene como misión primordial la prestación de los Servicios de Abastecimiento de Agua y Saneamiento en el ámbito territorial de los municipios que lo componen, según sus propios Estatutos, cuya última modificación fue aprobada por la Asamblea General de 5 de noviembre de 2014.

**TERCERO.**
Que por Ley 1/2006, de 26 de junio, se creó la Agencia Vasca del Agua, como ente Público de Derecho Privado adscrito al Departamento Competente en materia de Medio Ambiente, cuyo objetivo es llevar a cabo la política del agua en Euskadi.

**CUARTO.**
Que en la actualidad el Consorcio de Aguas presta el Servicio de Saneamiento en Red Primaria, y el Ayuntamiento es responsable de la Red Secundaria, o alcantarillado municipal. Por su parte, a la Agencia Vasca del Agua, le corresponde entre otras funciones intervenir en el dominio público

onartuz, eta haiek zainduz eta ikuskatuz.

hidráulico mediante el otorgamiento de autorizaciones de vertidos a cauce, su vigilancia e inspección.

**BOSGARRENA.**
Ur Partzuergoa, gaur egun, "Berriatua-Ondarroa etengailua eraikitzeko proiektuko (2. fasea)" obrak egiten ari da, Berriatuko herriguneko hondakin urak biltzeko eta dagoen lehen mailako sareraino garraiatzeko helburu nagusiarekin, Galtzuarango HUAn (Ondarroa) tratamendu egokia emateko.

**QUINTO.**
Que, actualmente, el Consorcio de Aguas está ejecutando las Obras del " Proyecto Constructivo del Interceptor Berriatua-Ondarroa (2ªFase)", cuyo objetivo fundamental es la recogida de las aguas residuales del núcleo de Berriatua y su transporte hasta la Red Primaria existente, para su adecuado tratamiento en la EDAR de Galtzuaran ( Ondarroa).

Testuinguru horretan, eta Berriatuko mugartearen barruan, Gardotza industrialdea dago, gaur egun Artibai ibaiaren ibilgura isurketak zuzenean egiten ari den industrialdea, tratamendu egokirik eman gabe; gainera, aipatutako proiektuan ez zen jaso haren isurketak biltzeko aukera, haren sareen egoeraren inguruan zalantzak zeudelako eta industria-isurketa batzuetan, kolektorera lotzeko, lehen mailako tratamendua falta zelako. Hala, bada, etorkizunean lotzeko, putzu bat baino ez zen aurreikusi, etengailu nagusiaren bertikalean, industrialdetik igarotzen den tokian.

En este contexto y dentro del Municipio de Berriatua se localiza el Polígono de Gardotza, cuya red de saneamiento se encuentra actualmente vertiendo directamente al cauce del Río Artibai sin un tratamiento adecuado, y cuya recogida no se contempló en el citado proyecto por la incertidumbre que existía sobre el estado de sus redes y por la falta de un tratamiento primario en algunos de los vertidos industriales para su incorporación a colector. Así, para su futura incorporación, únicamente se dejó previsto un pozo sobre la vertical del Interceptor General a su paso por el Polígono.

Alabaina, lana egin bitartean, industria nagusiak beren isurketei banakako tratamendua emateko sistemak garatzen hasi dira, eta horrek epe laburrean kolektorera lotzeko aukera emango du; horrez gain, sareen azterlan xehakatua egin da, eta horrekin zehaztu ahal izan dira zer azpiegitura behar diren isurketa horiek bildu eta etengailura eramateko.

Sin embargo, en el transcurso de la Obra, las principales industrias han puesto en marcha el desarrollo de sistemas de tratamiento individualizados en sus vertidos, lo que permitirá su incorporación a colector a corto plazo, y se ha realizado un estudio detallado de las redes, que ha permitido definir las infraestructuras necesarias para poder interceptar estos vertidos y conducirlos al Interceptor.

**SEIGARRENA.**
Gardotza industrialdeko hondakin urak saneamendu sare nagusira eramateko xedez, Ur Partzuergoko Zerbitzu Teknikoek "BERRIATUA-ONDARROA ETENGAILUA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN (2. FASEA) 1. LAN OSAGARRIEN PROIEKTUA" idatzi dute; kontrata bidez gauzatzeko aurrekontua, BEZ barne, **977.277,98 EUROkoa** da, eta gauzatzeko epea, berriz, **6 hilabetekoa.**

**SEXTO.**
Que con el objetivo de incorporar a la Red General de Saneamiento las aguas residuales del Polígono Gardotza, los Servicios Técnicos del Consorcio de Aguas han redactado el "PROYECTO DE OBRAS COMPLEMENTARIAS Nº1 DEL PROYECTO CONSTRUTIVO DEL INTERCEPTOR BERRIATUA-ONDARROA (2ªFASE)", con un Presupuesto de Ejecución por Contrata, IVA incluido, de **977.277,98 EUROS** y un

plazo de ejecución de **6 meses.**

Parte hartzen duten aldeek 1. Lan Osagarrien Proiektu horren edukia ezagutzen dute; bertan, Gardotza industrialdeko ur hondakinak biltzeko lanak nahiz Berriatua-Ondarroa etengailu nagusira garraiatzeko eta lotzeko lanak jasotzen dira. Lan batzuk zein besteak, funtzionaltasunari eta egokitasunari loturiko arrazoiak direla medio, aldi berean egin behar dira, etengailura eramaten den isurketa nagusia baita, egiten ari diren saneamendu lanen jarduera eremuaren barruan, emariaren aldetik zein kutsadura kargaren aldetik; gainera, isurketa hori biltzeak Artibai ibaiaren behe-arroaren saneamendurako azpiegitura orokorra osatzea ahalbidetuko du.

Los intervinientes conocen el contenido de dicho Proyecto de Obras Complementarias Nº1, en el que se definen las obras para la recogida de las aguas residuales del polígono Gardotza, así como las necesarias para su transporte e incorporación al Interceptor general Berriatua-Ondarroa, las cuales por razones funcionales y de oportunidad, deben ser acometidas conjuntamente, ya que se trata del vertido más importante a incorporar al Interceptor en el ámbito de actuación de las obras de saneamiento en curso, tanto en caudal como en carga contaminante, y cuya recogida permitirá completar la Infraestructura general de saneamiento de la Cuenca baja del Río Artibai.

**ZAZPIGARRENA.**
Hiru erakundeek interesik handiena dute "Berriatua-Ondarroa etengailua eraikitzeko proiektuaren (2. fasea) 1. lan osagarrien proiektu" horretan zehazturiko lanak gauza daitezen, egungo egoera nabarmen hobetzeko eta Artibai ibaiaren behe-arroaren saneamendurako azpiegitura orokorra osatzeko.

**SÉPTIMO.**
Que las tres Entidades tienen el máximo interés en que se lleven a cabo las obras definidas en el referido "Proyecto de Obras Complementarias Nº1 del Proyecto Constructivo del Interceptor Berriatua-Ondarroa (2ªfase)", a fin de mejorar considerablemente la situación actual y de completar la infraestructura general de saneamiento de la cuenca baja del río Artibai.

**ZORTZIGARRENA.**
Berriatuko Udalak beharrezko izapideak egiteko konpromisoa hartzen du, "Berriatua-Ondarroa etengailua eraikitzeko proiektuaren (2. fasea) 1. lan osagarrien proiektuan" jasotako lanak egingo diren lurzorua erabat erabilgarri egon dadin.

**OCTAVO.**
Que el Ayuntamiento de Berriatua se compromete a realizar los trámites necesarios para la plena disposición del suelo por el que se desarrollan las obras contempladas en el "Proyecto de Obras Complementarias Nº1 del Proyecto Constructivo del Interceptor Berriatua-Ondarroa (2ªfase)".

**BEDERATZIGARRENA.**
Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 4.1.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Herri Administrazioen arteko harremanetan bete behar den lankidetza-printzipioa kontuan hartu da.

**NOVENO.**
Que teniendo en cuenta el principio de cooperación que debe observarse en las relaciones entre Administraciones Publicas, a tenor de lo establecido en el Artículo 4.1.d) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Hala, bada, parte-hartzaileek Lankidetza Hitzarmen hau egin dute, klausula hauen arabera:

## KLAUSULAK

**LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDE DIREN LANAK**

Hitzarmenaren xede diren lanak "Berriatua-Ondarroa etengailua eraikitzeko proiektuaren (2. fasea) 1. lan osagarrien proiektua" izenekoari dagozkionak dira. Kontratuaren aurrekontua **977.277,98 eurokoa** da, BEZ barne, eta betearazteko epea, berriz, **6 hilabetekoa**

Gaur egun, Gardotza industrialdeko hondakin urak Artibai ibaira isurtzeko puntua industrialdearen sarbidearen ondoan dago, Berriatua-Ondarroa etengailuaren (2. fasea) trazatik urrun, azken hori industrialde horren kontrako aldetik igarotzen baita. Eraketa horren ondorioz, gaur egun ibaiaren ibilgura isurtzen den emaria saneamendu azpiegitura berrira eraman ahal izateko, isurketak biltzeko eta lehen mailako sarera lotzeko kolektore nagusi bat egin behar da, kolektore horrek, bere trazatuan zehar eta etengailuarekin lotzen den tokiraino, haren trazatik hurbil dauden kontserba-enpresetatik datozen isurketak bil ditzan.

"Berriatua-Ondarroa etengailua eraikitzeko proiektuaren (2. fasea) 1. lan osagarrien proiektua" delakoan jasoriko lanak hauek dira, funtsean: 3 saneamendu kolektore –bat nagusia da, FA deritzona, eta beste biak bigarren mailakoak dira, FC eta FD deitutakoak–, eta dagozkien hartune-adarrak, dauden isurketak biltzeko; eta euri-uren kolektore bat, sarea berriz bereizlea izatea ahalbidetuko duena. Jarduera horiek guztiak alternatiba bat dira, industrialdean arazketa-unitate bakartu bat jartzearen ordez.

Los Intervinientes proceden a formalizar el presente Convenio de Colaboración, con arreglo a las siguientes:

## CLÁUSULAS

**PRIMERA.- OBRAS OBJETO DEL CONVENIO**

Las obras objeto del Convenio son las correspondientes al denominado "Proyecto de Obras Complementarias Nº1 del Proyecto Constructivo del Interceptor Berriatua-Ondarroa (2ªfase) ", que alcanzan un Presupuesto de Ejecución por Contrata, IVA incluido, de **977.277,98 EUROS** y un plazo de ejecución de **6 meses.**

Actualmente, el punto de vertido de las aguas residuales del Polígono de Gardotza al río Artibai se localiza junto a la entrada del polígono, alejado de la traza del Interceptor Berriatua-Ondarroa (2ª fase) que discurre por el extremo opuesto del área industrial. Como consecuencia de esta configuración, para poder incorporar a la nueva infraestructura de saneamiento el caudal que en la actualidad se vierte a cauce, resulta preciso la construcción de un colector principal de incorporación y enlace con la red primaria, de modo que este mismo colector, a lo largo de su trazado y hasta su punto de conexión con el Interceptor, incorpora los vertidos procedentes de las empresas conserveras situadas próximas a su traza.

Las Obras incluidas en el "Proyecto de Obras Complementarias Nº1 del Proyecto Constructivo del Interceptor Berriatua-Ondarroa (2ªfase) " se componen, fundamentalmente, de 3 colectores de saneamiento, uno principal, denominado FA, y otros dos secundarios, denominados FC y FD, con sus correspondientes ramales de acometida para interceptar las vertidos existentes, y de un colector de Pluviales PA, que permitirá recuperar el carácter separativo de la red, resultando el conjunto de las actuaciones una alternativa a la instalación de una unidad de depuración aislada para el Polígono.

Gauzatu eta gero, denak bigarren mailako udal-sarekoak izango dira

Una vez ejecutados, todos ellos, pasarán a formar parte de la Red Secundaria de carácter municipal.

**BIGARRENA.- PROIEKTU TEKNIKOA**
Ur Partzuergoak idatzi eta onartu du dagokion Proiektu Teknikoa. Proiektu hori erabiliko da lanak kontratatu eta gauzatzeko oinarri modura.

**SEGUNDA.- PROYECTO TÉCNICO**
El Proyecto técnico correspondiente ha sido redactado por el Consorcio de Aguas, siendo aprobado por éste mismo. Dicho proyecto servirá de base para la contratación y ejecución de las obras.

**HIRUGARRENA.- BAIMENAK**
Ur Partzuergoak konpromisoa hartzen du, hitzarmen honen xede diren lanak behar bezala eta osorik egiteko behar diren baimenak lortzeko.

**TERCERA.- AUTORIZACIONES**
El Consorcio de Aguas se compromete a la obtención de las autorizaciones que exijan la correcta y total ejecución de las obras objeto del presente Convenio.

**LAUGARRENA.- LANEN KONTRATAZIOA**
Lanen kontratazio organoa Ur Partzuergoko Zuzendaritza Batzordea izango da. Ondorioz, horrek izapidetu beharko du oso-osorik kontratazio prozedura, dagozkion eskumenekin eta erregimenarekin bat etorriz.

Hori guztia dela-eta, Ur Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearen ardura izango da lanak esleitzea, Kontratazio Mahaiak proposatuta. Era berean, esleipenaren berri eman beharko dio Uraren Euskal Agentziari eta Berriatuko Udaletxeari.

**CUARTA.- CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS**
El órgano de contratación de las obras será el Comité Directivo del Consorcio de Aguas. En consecuencia, será obligación de éste la tramitación completa del procedimiento de contratación, de acuerdo con las facultades y el régimen que le son propios.

Por todo ello, corresponderá al Comité Directivo del Consorcio de Aguas la adjudicación de las obras, a propuesta de la Mesa de Contratación, dando cuenta de la misma a la Agencia Vasca del Agua y al Ayuntamiento de Berriatua.

**BOSGARRENA.- LANEN ZUZENDARITZA**
Lanak, behin kontratatuz gero eta lanok gauzatzeko eta/edo ezartzeko behar diren lur guztiak erabilgarri daudenean, beharrezko baimen guztiak izateaz gain, Ur Partzuergoko teknikariek zuzenduko dituzte.

**QUINTA.- DIRECCIÓN DE LAS OBRAS**
Las obras, una vez contratadas y disponiendo de todos los terrenos necesarios para la ejecución y/o implantación de las mismas, así como de todas las autorizaciones precisas, serán dirigidas por técnicos del Consorcio de Aguas.

**SEIGARRENA.- LANEN FINANTZIAZIOA**
Lanen finantzaketa haien funtzioen arabera banatuko da.

Ur Partzuergoaren kontura egongo dira kolektore nagusia, FA delakoa, egiteari lotutako lanak (kolektore horrek isurketa nagusia bilduko du eta isurketa guztiak lehen mailako sarera eramango ditu) eta PA deritzon euri-uren kolektorearen lanak (beharrezkoa sarea berriz ere bereizlea izan dadin). Kolektore horiei eta aurrekontuko kapitulu orokorren zati proportzionalari dagokien aurrekontua **583.969,23 eurokoa da (BEZ barne).**

Bestalde, Berriatuko Udalak bere gain hartuko ditu FC deituriko bigarren mailako kolektoreari lotutako lanak (kolektore hori beharrezkoa da gaur egun euri-uren sarera isurtzen duten poligono batzuk sarera lotzeko) eta industrialdeko urbanizazioaren hobekuntzak. Kolektore horri, urbanizazioa egokitzeari eta kapitulu orokorren zati proportzionalari dagokion aurrekontua **257.045,94 eurokoa da (BEZ barne).**

Uraren Euskal Agentziak, bestalde, FD deituriko kolektoreari dagozkion lanak hartuko ditu bere gain (kontserba-industrien prozesu-urak bereiz biltzeko aurreikusi da, isurketen kalitatearen nahiz instalaturiko aurretratamenduaren eraginkortasunaren jarraipena egin ahal izateko). Kolektore hori eta aurrekontuko kapitulu orokorren zati proportzionalari dagokien aurrekontua **136.262,81 eurokoa da (BEZ barne).**

Era horretan, Uraren Euskal Agentziak gehienezko ekarpen gisa aurreikusitako zenbatekoa 136.262,81 eurokoa da. Zenbateko hori 2016. urterako ordainketa-kreditu bati dagokio, eta horren aurrekontuaren kargura finantzatuko da.

Hortaz, lanak gauzatzeko lizitazioko

**SEXTA.- FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS**
La financiación de las obras será compartida dependiendo de la funcionalidad de las mismas.

Será por cuenta del Consorcio de Aguas las obras asociadas a la construcción del colector principal de saneamiento denominado FA, que servirá para interceptar el vertido principal y para conducir la totalidad de los vertidos al Interceptor de la red Primaria, y las del colector de pluviales PA, necesario para recuperar el carácter separativo de la red. El presupuesto correspondiente a los citados colectores y a la parte proporcional de capítulos generales del presupuesto asciende a **583.969,23 euros ( IVA incluido).**

Por su parte, el Ayuntamiento de Berriatua asumirá las obras asociadas al colector secundario denominado FC, necesario para incorporar a la red a algunos de los polígonos que actualmente vierten a la red de pluviales, así como las mejoras de la urbanización del polígono. El presupuesto correspondiente al citado colector, a la adecuación de la urbanización y a la parte proporcional de capítulos generales asciende a **257.045,94 euros ( IVA incluido).**

La Agencia Vasca del Agua, por su parte, asumirá las obras relativas al Colector FD, previsto para realizar la recogida selectiva del agua de proceso de las industrias conserveras, lo que permitirá realizar el seguimiento de la calidad de los vertidos y de la eficacia de los pretratamientos instalados. El presupuesto correspondiente al citado colector y a la parte proporcional de capítulos generales del presupuesto asciende a **136.262,81 euros ( IVA incluido).**

Así el importe previsto como aportación máxima que compromete la Agencia Vasca del Agua, es de 136.262,81 euros, correspondiente a un crédito de pago para 2016 que se financiará con cargo al presupuesto de la misma.

Por tanto, el importe total de las obras, cuyo presupuesto base de licitación asciende a

aurrekontu-oinarria **977.277,98 eurokoa** da **(BEZ barne).** Ur Partzuergoak zenbateko horren %59,76 ordainduko du; Berriatuko Udalak, berriz, %26,30 ordainduko du, eta Uraren Euskal Agentziak, azkenik, %13,94. Banaketaren ehuneko horiek kalkulatzeko, proiektuan jasotako jarduketen balorazioak hartu dira kontuan, arestian aipatutako funtzioen arabera.

Obrak gauzatzeko aurrekontuak, **977.277,98 euro (BEZ barne),** eta hiru aldeen artean zehaztutako banaketak gehieneko balioa ezartzen dute, eta hura ezingo da gainditu. Egiaz gauzaturiko lanen azken balorazioa hitzarmen honetan jasotako zenbatekoak baino txikiagoa balitz, alde bakoitzari dagokion proportzioan itzuliko da hondarreko zenbatekoa; hori ez da oztopo izango parte-hartzaile batek erabaki dezan, dagozkion onarpenak jaso ondoren, berari dagokion hondarreko zenbateko hori "Berriatua-Ondarroa etengailua eraikitzeko proiektuaren (2. fasea) 1. lan osagarrien proiektuan" jasotakoen jarduera osagarriak gauzatzeko erabiltzea.

Aurrekoa ikusita, hitzarmenean parte hartzen duten hiru aldeak derrigortuta daude hartutako betebehar ekonomikoei aurre egiteko behar diren aurrekontu-esleipenak egitera.

**ZAZPIGARRENA.- EKARPENEN ORDAINKETA**

Ordainketa egin baino lehen, Berriatuako Udalari eta Uraren Euskal Agentziari onartutako ziurtagiriak helarazi beharko zaizkio. Ondoren, dagokion ziurtagiri bakoitzaren arabera egingo zaio ordainketa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, eta gehienezko ekarpena seigarren klausulan ezarritako zenbatekoa izango da.

Partzuergoak, obra-ziurtagiriak ordaintzeko, ezingo die inola ere baldintzatzat jarri kontratistei Berriatuko Udalari edo Uraren Euskal Agentziari dagokion ekarpenaren transferentzia aurretik jaso beharra.

**977.277,98 euros (IVA incluido), será abonado en un porcentaje del** 59,76 % por el Consorcio de Aguas, del 26,30% por el Ayuntamiento de Berriatua y del 13,94% por la Agencia Vasca del Agua, respondiendo estos porcentajes de reparto a la valoración de las diferentes actuaciones contempladas en proyecto de acuerdo a su funcionalidad según se ha descrito anteriormente.

El presupuesto de ejecución de las obras, **977.277,98 euros (IVA incluido)** así como el reparto definido entre las tres partes, constituye un valor máximo de valoración de las mismas que no podrá superarse. Si la valoración final de las obras realmente ejecutadas resultase inferior a los importes contemplados en el presente Convenio, se procederá a la devolución de la cantidad remanente en la proporción que corresponda a cada parte, sin perjuicio de que alguno de los intervinientes, previas las aprobaciones que resulten necesarias, decidiese destinar el importe remanente que le corresponda a la ejecución de actuaciones complementarias a las consideradas en el contrato de "Proyecto de Obras Complementarias Nº1 del Proyecto Constructivo del Interceptor Berriatua-Ondarroa (2ªfase) ".

A la vista de lo anterior cada una de las partes que intervienen en el Convenio se obligan a efectuar las consignaciones presupuestarias suficientes para hacer frente a las obligaciones económicas que contraen.

**SÉPTIMA.- ABONO DE LAS APORTACIONES**

El pago de la aportación se realizará previo traslado de las certificaciones aprobadas al Ayuntamiento de Berriatua y a la Agencia Vasca del Agua abonándose al Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia la proporción de cada certificación que corresponda por la anualidad presupuestaria, con el límite máximo de aportación establecido en la cláusula sexta.

En ningún caso el Consorcio podrá condicionar el pago de certificaciones de obras al contratista a la transferencia previa de la aportación que corresponda al Ayuntamiento de Berriatua o a la Agencia

Partzuergoak, beraz, ezarritako epeetan ordaindu beharko die kontratistei, berandutzeagatiko interesak saihesteko. Hala egin ezean, bera izango da eragindako kalteen erantzulea, halakorik eraginez gero.

Vasca del Agua, debiendo el Consorcio, por tanto, efectuar los pagos al contratista en los plazos adecuados para evitar la incursión en mora y siendo responsable, en caso de no hacerlo, de los perjuicios que puedan irrogarse.

**ZORTZIGARRENA.- LANEN TITULARTASUNA, USTIAPENA ETA MANTENIMENDUA**

Ur Partzuergoak lanak onartu eta gero (horretarako, ekitaldi formalera Uraren Euskal Agentziaren ordezkari bati eta Berriatuko Udalaren ordezkari bati deituko zaie), lan horiek udal titulartasunera igaroko dira ekitaldi berean, eta, ondorioz, Udalak hartuko du bere gain lanok ustiatzeko eta mantentzeko ardura.

**OCTAVA.- TITULARIDAD, EXPLOTACIÓN Y MANTENIMIENTO DE LAS OBRAS**

Efectuada la recepción de las obras por el Consorcio de Aguas, a cuyo acto formal será convocado un representante de la Agencia Vasca del Agua y otro del Ayuntamiento de Berriatua, éstas pasarán, en el mismo acto, a ser de titularidad municipal y en consecuencia el Ayuntamiento asumirá la explotación y mantenimiento de las mismas.

**BEDERATZIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA**

Hitzarmen honetan ezarritakoaren jarraipena egiteko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da, eta Batzorde horrek hiru kide izango ditu: bat Berriatuko Udalaren aldetik, bat Ur Partzuergoaren aldetik, eta bat Uraren Euskal Agentziaren aldetik.

Hitzarmenak indarrean dirauen bitartean, Batzordearen egitekoa arlo tekniko, ekonomiko eta lankidetzazkoei buruzko zalantzak argitzea izango da.

**NOVENA.- COMISION DE SEGUIMIENTO**

Para el seguimiento de lo estipulado en el presente Convenio se creará una Comisión de Seguimiento que estará integrada por tres personas, una por parte del municipio de Berriatua, una por parte del Consorcio de Aguas y una por parte de la Agencia Vasca del Agua.

El cometido de la Comisión será el de dilucidar cuantas cuestiones técnicas, económicas y de colaboración entre las partes se susciten durante la vigencia del Convenio.

**HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.**

Hitzarmen honek sinatzen den unetik sortuko ditu ondorioak eta behartuko ditu aldeak, eta hitzarmenean bertan jasotako lan-onarpena egiten den arte iraungo du.

**DECIMA.- EFECTOS Y DURACION DEL CONVENIO**

El Convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma y durará hasta que se realice la recepción de las obras contempladas en el mismo.

**HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENAREN AMAIERA.**

Aurreko klausulan aipatutako indarraldi-epea amaitu delako edo suntsitu delako iraungiko da hitzarmena.

Aldeetako batek ez baditu bere gain hartutako konpromisoak betetzen, beste aldeak eskumena izango du konpromiso horiek zorrotz bete daitezen eskatzeko edo

**UNDÉCIMA.- EXTINCION DEL CONVENIO**

El Convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referida en la cláusula anterior o por resolución.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra a exigir su estricto cumplimiento o a solicitar su resolución.

hitzarmena suntsitu dadin eskatzeko. Hitzarmena suntsituz gero, aldeek zehaztuko dituzte gauzatzen ari diren jarduerak bukatzeko eta ordaintzeko baldintzak.

En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución.

Eta adostasuna agertzeko, batutako hiru aldeek sinatu dute, hiru aletan, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Y en prueba de conformidad, lo firman los tres comparecientes, por triplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

Jon Arriola Espilla
**Berriatuko Udalaren alkate-udalburua**
Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Berriatua

BERRIATUKO UDALA BIZKAIA

Ricardo Barkala Zumelzu
**Bilbao-Bizkaia Ur Portzuergoko presidentea**
Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia

CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA PRESIDENCIA LEHENDAKARITZA BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA

[redacted]nsola Kareaga
**Uraren [redacted] Agentziako zuzendari nagusia**
El Dir[redacted]eral de la Agencia Vasca del Agua

ZUZENDARI NAG[redacted]
DIRECTOR GENERAL